

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokiena Interneta iruditu zaigu, zehatz mehatz, aplikazio bat. Informazioa emateaz gain, online denda bat erabiliko dugu gure bi hornitzaileei erositako elikagaiak saltzeko.

Bezeroen eskariak haien helbideetara heltzeko, kontratatuko dugun garraio enpresa baten bitartez lortuko dugu.

Bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun bide nagusiak: lehenengoa eta garrantzitsuena aplikazioa izango da, dituzten galderak erantzuteko. Bestalde, gure onlineko denda. Eta azkenik, herriko azoketan egongo gara dituzuen zalantzak aztertzeko eta saltzen ditugun produktuak erakusteko.

